



## Inposaketen aurrean, BURUJABETZA.

### Euskal langileok lan erreforma eta zerbitzu publikoen suntsiketaren kontra!

Azkenengo urte hauetan langileok murrizketak besterik ez ditugu ezagutu, murrizketak eskuratuak izan ditugun eskubide sozial guztietan, lan eskubide zein herritar eskubideetan.

Agintari politiko nagusiek murrizketok krisialditik ateratzeko ezinbesteko neurri puntualak zirela sinestarazi nahi izan ziguten, denboraldi batez halabeharrez egin beharreko doiketatzat aurkeztu zizkiguten murrizketok. Murrizketak egoera ekonomiko txar baten ondorio bezala saldu nahi izan zizkiguten.

Denborak, aldiz, kontrakoa erakutsi digu. Murrizketa guzti hauek ezarri zituzten ez bakarrik denboran irauteko baizik eta ekonomia osoaren berrantolaketarako oinarri gisa, hau da, eredu sozial eta ekonomiko berri bat eraikitzen ari dira, aberatsak aberatsago egingo dituen sistema berri bat eraikitzen ari dira eta murrizketak sistema horren oinarri izango dira. Beraz, **murrizketak ez dira bakarrik krisialdiaren ondorio baizik eta prestatzen ari diren jokaleku ekonomiko berri baten oinarri.**

Hala, **murrizketak lege-erreforma ezberdinen bidez egiturazkoak bilakatzen ari dira:** pensio sistemaren erreforma, negoziazio kolektiboarena, lan erreforma. Erreforma guzti hauek murrizketei sistema berriaren egiturazko eta oinarrizko izaera ematen diete.

**Zerbitzu publikoetan ere laster erreforma baten bidez instituzionalizatuko dituzte murrizketak:** martxo bukaera aldera zerbitzu publikoen finantziazioaren erreforma azalduko du Raxoiren gobernuak. Lege honek zerbitzu publikoen sistema suntsituko du, eta hala, oso ondorio

larriak pairatuko ditugu langile bezala zein herritar bezala (oraindik erreforma honen nondik norako zehatzak ezagutzerik ez ditugun arren soldata murrizketa berriak eta kaleratze neurriak ere izan litezke).

2010ean soldata murrizketa ezarri zigutenean esaten genuenez, arazoa haratago doa, arazoa orduan ez zen soilik soldata murrizketa hura, orain ere arazoa ez da soilik ea gaixoaldi bajak osatuko dizkiguten, arazoa ez da soilik ordezkapenak betetzen ez direla, **arazoa askozaz ere larriagoa da, arazoa da zerbitzu publikoen sistema osoa suntsitu nahi dutela, ekimen pribatuak eskubide sozialak merkantzia bihur ditzan**, eta osasun, hezkuntza edota giza eskubide oro negozio bilakatu ahal izan dezan.

Gobernu espainolak (izan lehen PSOErena izan orain PPrena) ekonomia sistema oso bat jartzen ari dira botere ekonomikoaren zerbitzura batera disimulurik gabe, hain da horrela, ezen Estatua guztiz desagertu dela ere esan litekeela: negoziazio kolektiboan enpresari alde bakarrez uzten zaio soldatak eta lan baldintzak erabakitzen (gure kasuan esan behar da negoziazioa erabat desagertuta dagoela, gure lan eskubideak negoziatzeko eskubidea errotik kendu digute aspaldi), Enplegua Erregulatzeko Espedienteak Lan Sailaren baimen administratiborik gabe onartu ahal izango ditu enpresak, ABLEei ematen zaie ahalmen osoa lan munduratzeko intermediazioa egiteko, laster zerbitzu publikoen sare publikoa pribatuaren mesedetan desegin egingo dute, ... beraz, Espainian Estatua erretiratzen ari da benetan agintzen duen botere ekonomikoak zuzen-zuzenean eta lotsarik gabe agindu ahal izan dezan.

**Euskal Herrian zorionez erreforma guzti hauei erantzuten ari gara,** zerbitzu publikoetako langileok ere gure lanaren eta zerbitzu publikoen sistema sendo baten defentsan borrokan ari gara. Borroka hau da dugun berme bakarra.

Edozelan ere **erronka berri bati ekin behar diogu** egiten ari garen borrokaldi luze eta gogor hau erresistentzia hutsetik alternatiba bilakatzeko: **bertako instituzioek erreforma hauei bizkar eman** diezaietela lortu behar dugu, **zerbitzu publikoen garapenaren bidean jarri** behar ditugu, eta horrenbestez **aurrekontuetako partida sozialak**

**handitu** ditzaten hartu beharreko neurriak hartzera behartu behar ditugu, baina honetaz gain gero eta premia handiagoa dugu **Euskal Sektore Publikoa eraiki ahal izateko burujabetza ekonomikoaren alde** egiteko.

#### LAN ERREFORMAREN ONDORIOAK

##### Enplegua:

- **Kaleratzeak erraztu eta merketzen ditu:** 45 egunetako kaleratzea desagertu da. 33 egunetakoa orokortu da, baina azken hau ere ez da aplikatuko, kaleratze guztiak "bidezkoak" izateko arrazoiak guztiz erraztu direlako eta, hortaz, praktikan, 20 eguneko kalte ordaina baino ez da jasoko, urtebeteko mugarekin. Kaleratze aske eta doakoa.
- **Espedienteak ez dira lan agintaritzatik pasatu behar**ko. Enpresek eskuak libre izango dituzte kaleratze kolektiboetarako.
- Administrazio publikoetan ere espedienteak aplikatzeko aukera eman da. Denok erabiltzen eta behar ditugun zerbitzu publikoak murrizten jarraituko dute.

##### Prekarietatea:

- **Formazio kontratuak:** gutxienez urtebetekoak eta gehienez hiru urtetakoak. Lehen urterako 481 euro hilean eta bigarren zein hirugarren urteetarako 513 euro. Kontratu hauek, gainera, kateatu ahal izango dira.
- **Jardunaldi partzialeko kontratuak:** jardunaldi partzialekoak izan arren, aparteko orduak egin ahal izango dira. Hau da, jardunaldi osoa bete ahal izango du langile batek praktikan honelako kontratu batez. Kontratu mota hau emakumeei zuzentzen zaie bereziki. Ez da bizi pertsonala eta laborala bateratzeko neurri bat, baizik eta emakumeen enplegua "etxeko soldataren laguntzat" jotzeko eta ardura familiarrak emakumeen ardura eskusibo moduan uzteko.
- **"Ekintzaileei laguntzeko" kontratu mugagabea:** lehen urtean kaleratzea askea eta kalte ordain gabekoa. Kontratu hau 50 langile baino gutxiagoko enpresetarako da, hau da, Hego Euskal Herriko enpresen %97k aplikatu ahal izango dute.
- **ABLEak (ETTak):** Eskumen eta protagonismo gehiago ematen zaie. Honek enplegu zerbitzu publikoak pribatizatzea dakar.

##### Patronalak alde bakarrez erabakitzeko ahalmena:

Enpresarioak honela erabakiz gero, lan baldintzak nahi duen erara aldatu ditzake. Hitzarmenean adostutakoa ez aplikatzeko gaitasun osoa ematen zaio, berdin soladara, ordutegi edota jardunaldian. Gure eskubideak zapaltzeaz gain, gure eskubide horiek defendatzeko tresna funtsezkoa den negoziazio kolektiboa ere guztiz zapuztu dute.

#### ZERBITZU PUBLIKOEN FINANTZIATZIOAREN BALIZKO ERREFORMA

##### Orain arte hartutako neurriak:

- Soldata murrizketa 2010ean eta izozketa – eros ahalmenaren %13ko galera
- Gaixoaldi bajak zigortu
- Ordezkapenak mugatu
- Errelebo kontratua kendu
- EPEak debekatu
- Lan kontratudunentzat Enplegu Erregulazio Espedienteak ahalbidetu

##### Martxoan izan litekeen erreformaren ondorioak:

- Sistema publikoa progresiboki suntsitu
- Herritar bezala eskubide sozialen desagertpen progresiboa
- Zerbitzu publikoetako langile bezala kaleratze gehiago, lan baldintzak kaskartu, ...

# grebaorokorra

# m29



## Ante las imposiciones SOBERANÍA

### ¡La clase trabajadora vasca contra la reforma laboral y la destrucción de Servicios Públicos!

A lo largo de estos últimos años las y los trabajadores sólo hemos conocido recortes, recortes en derechos sociales que nos había costado mucho conquistar, tanto laborales como sociales.

Los dirigentes políticos que los han impulsado han pretendido hacernos creer que eran medidas de ajuste puntuales, recortes que irremediamente había que adoptar durante un corto periodo de tiempo. Han pretendido vendernos que los recortes sólo eran la consecuencia de un mala coyuntura económica.

Sin embargo, el tiempo ha demostrado que esto no es así. Cuando impusieron estos recortes lo hicieron con vocación de mantenerlos en el tiempo, es más, pretenden que los recortes se consoliden y que sean la base principal de una nueva reordenación del sistema económico, están preparando una nueva vuelta de tuerca de este modelo social y económico injusto que se va a sustentar en los recortes. Por lo tanto, **los recortes no son sólo una consecuencia a asumir en una coyuntura de crisis sino que pretenden convertirlos en el principal pilar de un nuevo escenario económico.**

**Por eso es por lo que a través de diferentes reformas legales están convirtiendo todas esas medidas en algo estructural:** reforma del sistema de pensiones, reforma de la negociación colectiva, reforma laboral. Todas estas reformas vienen a dar carácter estructural a lo que hasta ahora no eran sino recortes puntuales.

**En los servicios públicos también van a institucionalizar los recortes a través de una reforma:** se prevé que el Gobierno de Rajoy la presente a finales de marzo. La aplicación y desarrollo de esta ley traerá consigo la destrucción del sistema de servicios públicos, y sufriremos sus consecuencias tanto como ciudadanos y ciudadanas como trabajadores y trabajadoras de los mismos (aunque todavía no se puede aventurar cuáles son los términos concretos de la reforma, podríamos estar hablando incluso de nuevas reducciones salariales y más destrucción de empleo público).

Cuando en el año 2010 se nos impuso una reducción salarial ya advertíamos de que eso no era todo, cuando nos han quitado los complementos de baja por enfermedad ya dijimos que eso no era todo, que **el problema ni tan siquiera era que no se cubrieran bajas, que el problema era y sigue siendo que pretenden destruir el sistema público** para que la iniciativa privada convierta en mercancía los derechos sociales, y para que hagan negocio de su prestación.

El Gobierno español (el del PSOE en su momento y el del PP ahora) están poniendo toda la economía al servicio y dictado del poder económico, y además ahora lo hacen sin ningún disimulo, de hecho en el Estado español se puede decir que el Gobierno se ha retirado total y absolutamente: en la negociación colectiva no hay regulación ni convenio que valga, a la empresa se le ha dado total discrecionalidad para decidir unilateralmente qué sueldos y condiciones laborales aplicar (en nuestro caso esto es ya una realidad desde hace tiempo), podrán también aprobar EREs sin necesidad del permiso de la autoridad laboral, a las ETTs se les da todo el margen para la mediación en el mercado laboral, con la reforma de los en el servicios públicos destruirán el sistema para ponerlo a total disposición de la iniciativa privada, ... por lo tanto, el Estado español se está retirando totalmente para dejar que sea el poder económico el que directamente gobierne y dirija.

**En Euskal Herria afortunadamente estamos respondiendo,** las y los trabajadores de los servicios públicos estamos peleando en defensa de los mismos. La lucha es nuestra única garantía.

Aun así tenemos que ser capaces de **abordar un nuevo**

**reto** si queremos pasar de la resistencia a la alternativa: tenemos que conseguir que **nuestras instituciones den la espalda a todas estas reformas**, tenemos que conseguir que **desarrollen los servicios públicos**, tenemos que conseguir que **incrementen la inversión social en los presupuestos** y que adopten las medidas que para ello sean necesarias, pero además de esto cada vez resulta más urgente reclamar nuestro derecho a decidir y la **soberanía económica para poder construir un Sector Público Vasco fuerte y al servicio de las y los trabajadores.**

#### CONSECUENCIAS DE LA REFORMA LABORAL

##### Empleo:

- **Facilita y abarata los despidos:** el despido con 45 días desaparece y se generaliza el de 33 días. Sin embargo, tampoco se va a utilizar este último, ya que se facilita absolutamente que todos los despidos sean "procedentes", así que en la práctica se aplicará una indemnización de sólo 20 días con un límite de un año. Despido libre y gratuito.
- Los EREs no tendrán que pasar por la autoridad laboral. Las empresas tendrán las manos libres para aplicar despidos colectivos.
- Se extiende la posibilidad de aplicar expedientes también en la administraciones públicas, para continuar recortando en los servicios públicos, servicios que utilizamos y necesitamos todas y todos.

##### Precariedad:

- Contratos de formación: mínimo de un año y máximo de tres. 481 euros el primer año y 513 el segundo y tercero. Estos contratos, además podrán encadenarse.
- **Contratos de jornada parcial:** aunque sean de jornada parcial, se podrán hacer horas extras. Es decir, con un contrato así podrán cubrir en la práctica una jornada completa. Esta modalidad está dirigida a las mujeres. No es una medida de conciliación, sino una forma de convertir el empleo de las mujeres en una "ayuda al salario familiar" y de que las "obligaciones familiares" sean obligación exclusivamente de las mujeres.
- **Contrato indefinido de "apoyo a los emprendedores":** despido libre y sin indemnización durante el primer año. Este contrato está dirigido a empresas con plantillas de menos de 50, es decir, podrán aplicarlo el 97% de las empresas de Hego Euskal Herria.
- **ETTs:** se les da mayor protagonismo y más competencias. Es una forma de privatizar los servicios públicos de empleo.

##### Posibilidad de que la patronal decida de forma unilateral.

El empresario tiene la potestad de cambiar las condiciones laborales como le venga en gana. Se le otorga la capacidad de no aplicar lo acordado por convenio, ya sea el salario, el horario o la jornada.

Además de vulnerar nuestros derechos, también han finiquitado un instrumento básico de la clase trabajadora para defender estos derechos.

#### POSIBLE REFORMA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS

##### Medidas adoptadas hasta ahora:

- Reducción salarial del 2010 y posterior congelación – pérdida de un 13% de poder adquisitivo.
- Castigar las bajas por enfermedad.
- Limitar las sustituciones.
- Quitar el contrato de relevo.
- Prohibir las OPEs.
- Posibilitar EREs para el personal laboral

##### Consecuencias de la reforma de marzo:

- Desmantelamiento progresivo del sistema público.
- Destrucción progresiva de derechos sociales.
- Despidos en los servicios públicos, empeoramiento de las condiciones laborales, ...

# huelgageneral

# 29m